

Hizkuntzen Trataera Bateratua: zer erronka aurkezten dituzte irakasleek ikuspegia gelaratzeko orduan?

ITXASO VAZQUEZ

ivazquez@bam.edu.es

HIZKUNTZALARI EUSKALDUNEN VII. TOPAKETA

2024/06/27

1. IKERKETAREN JUSTIFIKAZIOA


- HTB ikuspegiak, hizkuntzen arteko transferentziak ardatz izanik, planifikazio didaktiko eraginkorrak diseinatzea du helburu. Lortu nahi duena da hizkuntzen arteko curriculum koordinatuak diseinatzea, eskolako denbora mugatuari etekin gehiago ateratzeko hizkuntzen arteko elementu komunak partekatuz eta espezifikoak berariaz landuz.
- HTBk babes instituzionala dauka: **LOGSE 1/1990 Lege Organikotik jasotzen da**, eta egungo LOMLOE 3/2020 Lege Organikoan ere, baina ikusi da errealitatean **ikastetxe gutxik inplementatzen dutela (Apraiz eta beste, 2012)**.



Aplikazio urri hori hobeto ulertzeko, **irakasleek ikuspegia gelaratzeko orduan izan ditzaketen erresistentziak ezagutu nahi izan dira.**

2. OINARRI TEORIKOAK


Cummins-en (1979/1981) interdependentziaren hipotesia ardatz



(Cummins eta Swain, 1986, autoreak moldatua)

2. OINARRI TEORIKOAK

Cummins-en (1979/1981) interdependentziaren hipotesia ardatz



(Cummins eta Swain, 1986, autoreak moldatua)

3. Metodologia

3.1 Ikerketaren helburua, ikerketa galderak eta hipotesiak

Ikerketaren helburu nagusia

Irakasle eta irakasle gaiak eleaniztasunaz eta ikuspegi pedagogiko eleanitzez dituzuen usteak, ezagutzak eta jarrerak aztertzea.

Ikerketa galderak

1. Eleaniztasunaren inguruko usteak

- 1.1G Zer iritzi dute irakasle eta irakasle gaiak eleaniztasunaz?
- 1.2G Zer iritzi dute hizkuntzak modu bateratuan lantzeaz?

2. Hizkuntzen Trataera Bateratuaren ezagutza

- 2.1G Formakuntzarik jaso al dute HTB planteamenduaz?
- 2.2G Ezagutzen al dituzte HTB planteamenduaren oinarri teorikoak?

3. Hizkuntzen Trataera Bateratuaren aplikazioa

- 3.1G Zer aukera ezagutzen dituzte HTB aplikatzeko?
- 3.2G Koordinaziorik al dago irakasle artean?
- 3.3G Bestelako zer faktorek oztopa lezake HTBren aplikazioa?

Hipotesiak

1. Eleaniztasunaren inguruko usteak

- 1.1H: Irakasle eta irakasle gaiak eleaniztasunaren inguruko uste positiboak dituzte
- 1.2H: Irakasleek irakasle gaiak baino uste positiboagoak dituzte hizkuntzak modu bateratuan lantzeaz

2. Hizkuntzen Trataera Bateratuaren ezagutza

- 2.1H: Irakasle gehienek HTBren inguruko formakuntza jaso dute, baina oso modu teorikoan
- 2.2H: Irakasle gaiak irakasleek baino ezagutza gehiago dute HTBren oinarri teorikoez

3. Hizkuntzen Trataera Bateratuaren aplikazioa

- 3.1H: Irakasleek hizkuntzak modu isolatuan irakasten dituzte
- 3.2H: Hizkuntza irakasle arteko koordinazioa aproposa da, baina arloetako eta hizkuntzetako irakasle arteko koordinazioa ez
- 3.3H: Badira HTBren aplikazioa oztopatzen duten faktore batzuk: hala nola, denbora falta edo material didaktiko aproposak ez izatea

3. Metodologia

3.2. Ikerketa tresna eta parte-hartzaileak

Ikerketa tresna

- **Galdetegiak** (modu birtualean)
 - Galdera itxiak informazio orokorrak jasotzeko
 - **Likert eskala** bidezko 31 item
 - Itemak puntuatzeko 1-7 bitarteko eskala
- Oinarria: Haukås (2016) eta Gorter eta Arocenaren (2020) galdetegiak*

Parte-hartzaileak

Bi hezkuntza zentrotakoak:

- LHko D ereduko eskola publiko bat. **Guztira 21 irakaslek** parte hartu dute.
- Irakasleen Unibertsitate Eskola bat. HTB ikasgaia jaso izan duten 3.mailako **35 ikaslek** parte hartu dute.

4. Emaidzak

4.1 Eleaniztasunaren inguruko usteak


- ✓ Uste dute **eleaniztasuna ikasleen garapenerako onuragarria** izan daitekeela.
- ✓ Ikastetxekoak ez diren **bestelako hizkuntzei begirunea** erakustearen alde daude.
- Irakaslegai batzuek uste dute **eleaniztasunak nahasteak** sor ditzakeela.
- Irakaslegaiek orokorrean **hizkuntzak modu isolatuagoan** irakastearen aldeko jarrera.
- Hizkuntza ikasgeletan **beste hizkuntza batzuk** erabiltzeari dagokionez, eszeptiko ageri dira.

4. Emaitzak

4.2 Hizkuntzen Trataera Bateratuaren ezagutza

HTBren inguruan jasotako formakuntza:

- %4k adierazi du formakuntza nahikoa daukela ikuspegia gelaratzeko.
- %29k ez dauka formakuntza nahikorik.
- %67ari aplikaziorako formakuntza falta zaio.



HTBren inguruko ezagutza:

- Irakaslegaiek ez dute horren argi **hizkuntza bateko ezagutzak besteetan aprobeitza daitezkeela.**
- Orokorrean adierazi dute **idatzizko testuetan abilezia diskurtsiboak errazago transferi daitezkeela.**
- Badirudi **euskara-ingeles hizkuntzen artean transferentzia diskurtsiboak nekezago** egin daitezkeela uste dutela.

4. Emaitzak

4.3 Hizkuntzen Trataera Bateratuaren aplikazioa

- ✓ Irakasleek adierazi dute ikastetxean **ikuspegi komunikatiboa eta diskurtsiboa erdigunean** daudela.
- ✓ **Hizkuntza irakasleen arteko koordinazioa egokia** dela adierazten dute.

- Hizkuntza eta **arloetako irakasleen arteko koordinazioa ez dela egokia** adierazten dute.
- Irakasleek **ez dute uste ikastetxean transferentzia diskurtsiboak ahalbidetzen dituztela.**
- **Ikuspegia gelaratzea oztopatzen duten faktoreak:**
 - Baliabide didaktiko aproposak ez izatea
 - Zuzendaritza taldearen babes falta
 - Irakasle batzuen aldaketarekiko erresistentzia
 - Denbora falta

5. Ondorioak

HTB ikuspegiak duela bizpahiru hamarkadatik zilegitasuna eta babes instituzionala izan arren, ikuspegi hau gelaratzea konplexutasunez beteriko bidea izan daitekeenez, oraindik zenbait urrats eman beharko liriateke ikastetxeetan inplementatzea lortzeko.

Positiboa izan daiteke gure identifikatutako beharrei erantzuteko bide hauek zabaltzea:

- ✓ Hizkuntzen didaktikako **jardunbideez gogoeta** egitea.
- ✓ Irakasleen **artean ikuspegi pedagogiko eleanitzen inguruko ezagutza** handitzea.
- ✓ HTBren **aplikazioan oinarritutako formakuntza** gehiago eskaintzea.
- ✓ Ikastetxeetan hizkuntza eta arloetako irakasleen arteko **koordinazioa** sustatzea.
- ✓ Argitaletxe eta gobernuetako eragileek (adibidez, Berritzeguneek) HTB ikuspegia inplementatzeko **material aproposagoak** sortzea.
- ✓ HTB ikuspegia jarraitzen duten –edo jarraitu izan duten– ikastetxeetako planifikazioen **bilduma edo gordailu bat** sortzea.

Erreferentzia bibliografikoak

- Apraiz, M., Pérez, M. eta Ruiz, T. (2012). La enseñanza integrada de las lenguas en la escuela plurilingüe. *Revista Iberoamericana De Educación*, 59, 119-137.
- Cummins, J. (1979). Linguistic Interdependence and the Educational Development of Bilingual Children. *Review of Educational Research*, 49, 2, 222-251.
- Cummins, J. (1981). *Bilingualism and minority language children. Language and literacy series*. Toronto: Ontario Institute for Studies in Education.
- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA). (2023). 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- Gorter, D. eta Arocena, E. (2020). Teachers' beliefs about multilingualism in a course on translanguaging. *System*, 92, 1-10.
- Haukås, Å. (2016). Teachers' beliefs about multilingualism and a multilingual pedagogical approach. *International Journal of Multilingualism*, 13(1), 1-18.

ESKERRIK ASKO!